

GIG 43

ASTIGARRIBIAKO PINAKULU-MOTAKO KARSTA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2,88

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Astigarribiako haranaren modelatuan, jatorri karstikoko pinakuluak dira nagusi, eta horiek konokiturako erliebeak sortu dituzte, baita esferaerdi-itxurakoak ere, denak gutxi-asko bakartuak eta kota berdintsukoak, 130 metro ingurukoak.

Mendi-hegalak artadiz estalita egoteak galarazi egiten du kareharrien gainazal meteorizatua xehe-tasunez ikustea, baina lapiaz bat garbi samar ikusten da, erdi estalita. Modelatu karstiko hau *karst poligonal*, *dorre-karst* edo *cockpit-karst* motakotzat har daiteke, sakonuneen arteko erliebeak konokiturakoak ditu, eta eskualde heze epeletako eta tropikaletako modelatu tipikoa da. Airetik ikusita arrautza-kaxa bat dirudien topografia-mota hau gainazalaren disoluzioz eratua da, eta Sasieta inguruetan, zehazki, gainazal hori 150 metroko altueran dago. Goitik beherako disoluzioz eratutako modelatu exokarstikoaren oinarri izan den gainazal hori (ziur asko higadura-gainazal bat dena) gaur egungo kostaldean hasi eta, ibaiaren haranean aurrera, Sasieta meandroraino hedatzen da. Horregatik, substratuaren litologia berdina den arren, ibaian gora haranaren barrualdean dauden erliebeak askoz kota altuagokoak dira (350-400 metro inguruko altitudoak). Oina 48-50 m-ra duen dolina handi batek bereizten ditu 150 metroko kota duten mendiak eta 350 metrotik gorakoak.

Erliebe horiek Erlo formazioko kareharri kretazeo urgondarrez osatuta daude.

Pinakulu handienetako bat erabat deseginda eta hustuta dago, Sasiolako harrobia dela tarteko.

NOLA BERTARATU

N-634 errepidea hartuta, harrobiaren beraren inguruan.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Gi-3230 errepidetik, Astigarribiako ermitaren parean.



Sasiola inguruko pinakulu taldea.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 550772 m / Y= 4792195 m / Alt.= 113 m



Astigarribiako pinakulua.